

HERNAN CORTES

España'tik Ameriketara joan ziran urre-zaleen artean daukagu Hernan Cortes ospetsua.

Badajoz'eko Medellin errian jaio zan 1485n. urtean. Buru argikoa, jakituna ta zurra zan.

Salamanka'n egin ebazan ikasketak baiña Ameriketatik etozan urre-zaratak lilluratu eben eta ara joan zan.

1511n. urtean Kuba'n daukagu eta an egoan Diego Velazquez'ek beragandu eban zurra zalako. Onek bere senitartetik emon eutson emaztegaia be, eta Yukatan'era bialdu eban billaketak jarraitzeko.

600 gizon eroiazan beragaz. Jainkoari eskintzeko gizakiak erailtea debekatu eban eta antxe artu eban Mexiko'ren entzutea. Orrek aitzu eragin eutson Velazquez laguna.

Moktezuma aurkitu eban an, azteka'en agintari baiña onek ez eutson laga beragana urreratzen, Cortes'ek sarritan eskatu arren.

Azteka'tarren arrerioak ziran zempoala'tarrakaz egin zan lagun eta oneikaz bat eginda, azteka'tarren inperioa eskuratzea erabagi eban, euren artean banatuta eta alkarragaz burrukan ebiltzala ikusi ebalako.

Moktezuma'ren inperioa, Inka'tarrenaren antzekoa zan, aginte gogorrekoa, odol-zalea, eta eurentzat espāñatarrak etortea salbamena zala uste eben. Oneik izango ziran euren askatzailleak.

Hernan Cortes'ek bere burua gobernatzaille izendatu eban eta Mexiko-barrurra sartu be bai, baiña lenago bere itsas-ontzi guz-ak apurtu ebazan iñok iges egin ez egian.

1519n. urtean azpiratu ebazan tlaxkatelkak eta bizirik urten ebenak laguntzaille artu ebazan.

Cortes erail nai izan eben inditarrak baiña Malintxe emakumeak salatu ebazan. Cortes'ek artu-emon onak izan ebazan onegaz eta onen bidez eldu zan inditarrakaz 1519n. urtean Moktezuma'ren aurrera, Malintxe bera interprete zala.

Moktezuma'k ez eban nai gudarik, baiña espāñatarrak etorri jakozan Cortes'eri aurka eta laster azpiratu eta geratu ziranak gudari artu ebazan.

Moktezuma'ri eskatu eutson erria baretzeko eta au berba egiten egoala, azteka baten arrikada batek erail eban.

Txarto aurkitzen ziran Hernan Cortes eta lagunak: Inguratuta, gosez, gitxituta... Zer egin? Atzeratu, erretiratu. 1520n. urtean izan eben "Noche triste" deritxona

Azkenean Otumba'ko gudaldia egin eben eta azteka'k betiko azpiratu ebezan. Or amaitu zan euren inperioa.

OLAZAR'tar Martin'ñ ek

LURRA

Euskaldun lur maitea,
berezko zara eder
seme alabentzat,
zu ta zure umeak
elkarren gutun gara
euzko lurrarentzat

Mendi ta zelai ederrak
daukazuz babesean
biziaren pozez,
lantegi ugariak
agertzen dira nun-nai
bizitza omenez.

Maitegarria zara
euzko lur emoillea
zure on-bidean,
zuri begira dagoz
euzkotar seme onak
zuzentasunean.

ITZA

Itz ederrik nai ba da
bizia poztuteko,
zoaz Euskadira
izkuntz jakintsua da
euskaldun semeena
itzetik itzera.

Jakituri ta biotz
biok dabiltz batera
miñak alkarturik,
izkuntz berezia da
euzkoak dakarrena
alkartasunetik.

Usain gozozko lore
bitxirik ederrena
dabil gizonetan,
euskera maitegarri
sortu dau euskaldunak
euzkotar itzean.

BIOTZA

Bizi ardatza zara
urrezko bitxi ori
gizonen barnean,
zure menpe daukazuz
azur, odol, aragi
bizitz ederrean.

Urtien gora-beran
giza seme guztiak
zuri deiez dagoz,
bizia maite nai dau
gizxon zoragarriak
zure amodioz.

Biotz maitegarria
zabaldur gaixoari
bizitza ateak,
ta maitasun gozoaz
eztitu goitik-bera
samiñen nekeak.

PAULIN